

Udal Musika Eskolaren kontzertu bufoa, Inauteriei hasiera emateko.- Manuel Lekuonako auditorioa ipuin batean bezala ikusi genuen atzo. Gaztetoen moztzori koloretuek eta musikak ordubate pasatxo gozarazi zituzten bildutako entzuleen belarriak. Besteak beste gitara, trikitia, zeharkako flauta, pianoa, gitara elektrikoak, tronpeta, bibolina eta txistua entzuteko aukera izan da. Autore ezberdinen obrak jo zituzten gainera, Edwin Hawkinsen 'Oh Happy day', Henry Mancininen 'Pantera arrosa', 'Marinelaren zain' herrikioa, 'Piratas del Caribe' pelikularekin soinu banda... Denera 20 obra baino gehiago interpretatu zituzten Udal Musika Eskolako gazteek. Oriako Sargin dantza-zerrendaren doinuak itxi zuen kontzertu bufoa, txistulari eta dantzarien laguntzarekin. Bestalde, gaur arratsaldean herriko ikastetxeetako txikitxoek jarraipena emango diete Inauterietako ospakizunei. Landaberrin 15:30ean bilduko dira, eta ikastetxeetako gimnasioan koreografiak egingo dituzte Gepeto eta Pinotxo, Hamelingo txikilariak, Vicky bikingoz edota Hiru otsoz eta txerrikumez jantzi. Ohi bezala, Garaikoetxeen Euskal Inauteriak ospatuko dituzte Miel Orxini eta Ziripotekin batera 15:30etik aurrera. Eguraldi ona lagun, Sasota ikastetxean 15:30ean bilduko dira bai Sasotako bertako eta Zumaburuko txikienak gimnasioan dantza eta koreografiak egingo. Txarra egin ez gero, zentro bakoitzak bere jaialdia egingo du. Piratak, Lehoi Enregea pelikularekin, Pinotxo, Heidi etab. ikusteko aukera izango da. Ondoren txokolate beroa banatuko du Burunzpe guraso elkarteak, 16:00rak aldera. Giro ona ziur ez dela inon faltako.

3 UDALBATZARRA

Hondakinei buruzko gaiak eztabaidagai ohiko udalbatzarrean

Erregistro zibilen pribatizazioa, Mendealdeko Saharen egoera...eta hondakinen kudeaketa. Horiek izan ziren astearte arratsaldeko udalbatzarrean eztabaidatu ziren gaiak. Hori baino lehen, Fernando Escoriazak zinegotzikargua zin egin zuten, PSE-EFren taldera batuz.

4 TXIMISTARRETA

Bukatu da Tximistarreta parkearen prozesua

San Pedro elizaren atzeko estalkiaren babesean egin zuten hitzordua larunbat goizean. Tximistarreta parkea pentsatzen, diseinatzen eta gauzatzen aritu diren herritar eta eragile ezberdinak bildu ziren parte-hartze ekimen honi bukaera eta azken ukituak emateko.

4 INAUTERIAK

Ipuin eta komikiek hartuko dituzte herriko kaleak

Giro onak, musikak eta festak Lasarte-Oriako bazterrek blai-tuko ditu asteburuan, eta tamalez, dirudienez eurik ere bai. Dena den, guztia prest dago Inauterietan herri-tarrek goza dezaten. Larunba-taan konpartsek emango diote kolorea Lasarte-Oriari, igan-dean Euskal Inauteriek.



ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan
 Etzeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak
 Txistorra Basurde burua
 Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA
 Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
 Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

AUKERA PAREGABEA!!

Bideo Lagunak

Etiketoresna elektrikoetan adiutak

299€ **249€** **599€** **799€**

32" **42"**

12 ORDAINDU HILABETETAN INTERESIK GABE

Neure kabuz



Asier Odriozola

Inauteriak

Ez, ez da batere orijinala Inauterietan Inauterietz hitz egitea baina nekosoa da oso orijinaltasunaren atzetik ibiltzea idazte-rakoan. Horretaz gainera, urteko egutegiak berarekin dituen jaien artean hauek ditut gustukuene-takoak. Batetik urte osoko itxura eta janzerari egun batzuez muzin egin eta indioarena egiteko aukera ematen dizulako indio jantzian joan nahi baduzu. Beste-tik, kritikarako bide izan delako mendeetan barna eta gaur egun ere satira armen begiradapean dagoen honetan, boteretsu duen-en kontra joateko aukera ematen duelako umore zorrotzaren bitartez eta asko dira boteretsu: era guztietako gobernuetan dau-den politikariak, ezin erlijiotako ortodoxia zaintzen duten automa-ta arriskutsuak, munduko ekono-mia jolaslerako erabiltzen duten inbertsore bihozka-beak... Egurra horie! Armarik sinple eta eskura-garrien dugunarekin: ironiarekin.

Askoz gehiago dira inauterietz hitz egiteko arrazoiak, mundu osoan ospatzen diren aldetik, baina ni horrek erakartzen nau: haundieki kilimik egiteko balio izan duela biete eta horrexegatik izan duela festa horrek hamaika debeku bere bizkar.

Erakartzen nau bidenabar jai hauek eta Inauterietzaren jai zehatz batzuk hartu izan duten izen-sorta zabalak, lekuan lekukoa: haratuste, ostegun gizen, eguen zuri, ostiral mehe, ostiral makal, larunbat inaute, zaldunita bezpe-ra, igande inaute, zaldun inaute, zaldunita, astelehen inaute, astele-tina, astearte inaute, asteartita, haustere...

Hitz horietako askok Inauteri epizentrotara garamatze: Tolosa-ra! Baina haiei eurenaren onartuz, guk Lasarten ospatuko ditugu, xume baina harro, batzuk, Venezialako Inauteritako jantziak soinean.

Zorion agurrak



Naroa

Zorionak printzesa! I I muxu erraldi! Julen, aitakoa eta amarioren partez.



Nacho

Zorionak zure urtebetzean. 10 muxu pottolo, aita eta amaren partek. Oso ondo pasa!



Nora

Zorionak printzesa! Muxu asko gurasoen, Mikelen eta Mariaren partetik!



Aiara eta Amane

Zorionak gure printze-sei! Hiru muxu handi familia eta lagunen par-tetik!



Naiara eta Aingeru Zorionak bikote! Zorag-ri pasa zuen egunean. Ez daitezela sekula irri polit horiek gald! Muxu erral-dioa familiaren partetik!



Naroa

I, 2, 3... 8 urte bete ditut gure etxeko sor-ginak. ZORIONAK eta muxu pila etxe-koen partetik.



Hodei

Zorionak amona eta familiaren partez! Muxu bai!



Maialen

Zorionak polita! Muxu asko danon par-tetik ta segi kontzen-tukin disfrutazten!



Irati

Zorionak 6. urtebetze-zean! Mozorrotu eta ondo pasa! Familiaren partetik.



Aner

Zorionak Aner! Aitzia-k doblea daukazu asteburuan parrandan ateratzeko. Kuadrila.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

- Etxebizitza alokatzen da Sasota auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 52 67 66
- Etxea alokatzen da erdigunean, Okendo plaza eta Kale Nagusira ematen du eta berritua dago. Apiriletik aurrera. Saioa 656 75 32 28
- Garaje marra bat alokatzen da Loidibarre-nen 10 m2ko trasteroerakin. 100 euro. 677 86 36 42
- Garaje plaza irekia alokatzen dit. Juan XXIII plazan 627 64 94 26
- Bulego batean lan egin nahi nuke Lasarten, espazioa konpartitua. Informazio gehiago: 661 45 29 09
- Garaje bat saltzen dut Anbueneako plazan, kiroldegia ondoan. 610 73 32 64.

Salerosketak

- Estreinatutako gabeko ASPES markako bitroze-ramika eta labea ditut salgai, 275 eurotan. sukaldesalgai@hotmail.com.

Lan-eskaria

- Garbiketarako, umeak edo agureak zaintze-ko prest nago. Edozein ordutegi (interna izan ezik). Azucena. 669 93 10 26.
- Adinduek, umeak edota garbiketa lanak egi-teko prest. Oрдuka edota interna moduan. Esperientzia eta erreferentziak. 662 27 71 36
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Oрдuka lan egiteko prest ere. 943 40 10 15 / 606 66 10 48
- Sare sozialetan kudeatzaila tituluduna naiz. Prest nago zure enpresa edo denda kudea-tzen laguntzeko. 605 70 85 15.
- Emakume arduratsua eskaintzen da oрдuka garbiketa lanak edota helduen zaintzarako etxean zein ospitalean. Haur zaintzan ere esperientzia duna. 615 75 56 91.
- Euskara, ingelese edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 766 068.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

• Maddi Ibeas Verga, urta-rrilaren 28an.



Heriotzak

• Isidoro Sagasti Garcia, urtarri-la-ren 27an, 86 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 13	Candarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Larunbata, 14	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Igandea, 15	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 16	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteartea, 17	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteazkena, 18	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Osteguna, 19	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Echeveste Elosegi, Elkanio 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutzte Goria	943 363953
Udalzainak	943 362442
Ertaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistraio	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kinolojia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
CIUB	943 361605
Udal euskaltalgia	943 376162
Muntteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALAK

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko irizti-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Txutkun Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakito: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Auzumendi, Iñigo
Gonzalez, Jon Albura E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Aurtena Arriola

publizitatea@txutkun.com

administrazioa@txutkun.com

Laguntzailea:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Malu Amati,
Asier Oñobio, Maider Segura,
Gorka Alvarez, Josu Arrieta, Piko
Aizpiteri, Edu Galardi

Informakioa:

Xabier Amadoz

UDALBATZARRA

Hondakinei buruzko gaiak eztabaidagai udalbatzarrean

Fernando Escoriaza, PSE-EEren zinegotzi berria



Hamazazpi zinegotz egon zen osatua astearteko udalbatzarrak, aspaldiko partez.

Gai ugari jorratu ziren astearte arratsaldeko udalbatzarrean: Erregistro Zibilen pribatizazioa eta mendebaldeko Sahararak bizi duten zapalkuntza eta jazarpen egoera... eta hondakinen kudeaketa. Herrian 5. edukiontzia ezarpena eta PIGRUG plana izan zituzten hizpide alderdi politikoek, besteak beste.

TXINTXARRI

Eguneko gaiak hasi aurretik, Fernando Escoriazak zinegotzi kargua zin egin zuen. Kide berri bat du hortaz Lasarte-Oriako udalbatzarrak; PSE-EEren udal taldean sartu da Escoriaza, Nerea Artamendik urtarilean utzitako tokia hartuz.

Hondakinen kudeaketa

Hondakinei buruzkoak izan ziren astearteko pleno aretoan eztabaidatuak izan ziren gaiak. PSE-EEK mozio bat aurkeztu zuen aurrea, 'Hondakinen kudeaketari buruz' izenekoa.

Jesus Zaballosek GHK-k hartutako erabakia salatu zuen, erraustegia Zubietan ez erakitzearena: "Hilabeteko 500.000 euro baino gehiago ordaindu beharko dituzte GHK osatzen duten mankomunitateek, partzuergoak eta Foru Aldundiak hartutako erabakiengatik".

Onartua izan zen aldeko 9 bozka, 5 aurkako eta 3 abstentziorekin.

EAJK mozioaren esandako gutzia berretsiz izan zen, Estitxu Alkorta bozeramaileak jakinarazi zenez. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundia kritikatu zuen: "Ez da egia errauste plantaren proiektuaren hasierako kostua 500 milioi eurokoa zela, EH Biluren trikimailu bat da. 221 milioiitan itxi zen proiektua

aurreko legeingintzaldian".

EH Bilduko Nerea Sanchez hartu zuen hitza ondoren. "Gogora ekarri nahi dut aurreko legeingintzaldiaren amaieran GHK-ko arduradun zirenek korrika eta presaka lotu zutela errauste plantaren proiektua, baita finantzazioa ere, La Caixa eta Banestok jarritako baldintzak bai ala bai onartuta. GHK-ko arduradun eta teknikariak bazekiten ordea gaindimentsionatua zegoela egitasmoa, zergu epaitegiaren onartu bezala".

Erregistro zibila eta Sahara

Bake Epaitegiko langileek aurkeztutako mozioa aztertzen zuten ondoren, Erregistro zibilen pribatizazioari buruzkoa.

PPren gobernuak "esku pribatuetan" utzi nahi ditu Erregistro zibila, langileek mozioaren nabarmendu zuten. Horrek ekar ditzakeen ondorioak aipatu zituzten mozioak: 3.500 lanpostu publiko galduko direla eta Bake epaitegiak desagertu egingo direla esan zuten, besteak beste.

La aho batez onartu zuen udalbatzarrak mozioa: aldeko bozkek 16 eta aurkako bat.

Babes zabalda izan zuen baita ere Euskal herriko lagunen Mendebaldeko Sahararakin bat taldeak aurkeztutako mozioak. "Mendebaldeko Saharak lurralde okupatue-

tan" gertatzen diren "etengabeko giza eskubideen aurkako erasoak" salatu eta hainbat esakaera egin zizkion taldeak udalbatzarrari: eskubide horien "urraketak" gaitzestea eta Hassana Aalia ekintzailearen asilo eskaera "onartu eta berrestea", besteak beste.

Hondakinak hizpide berriro

Bosgarren puntua izan zen EH Bilduk aurkeztutako mozioa, 'Erraustegirik ez, organikoaren birziklapena orain'. Mozio horri osoko zuzenketa egin zion EAJK; bi mozioak eztabaidatu ziren.

Nerea Sanchez zinegotziak 5. edukiontzia izan zuen hitza ondoren: "Argi dago EAJK eta PSE-EEK materia organikoaren bilketan ez dutela ezer aurreratu nahi. Kritikoak izan gara gu sistema horrekin, baina uste dugu hobe dela hori ezartzea ezer ez egitea baino, baldin eta Europak jarritako baldintzak betetzen badira: %60ko birziklatze-tasa 2016rako".

EAJK Estitxu Alkortaren txanda izan zen horren ostean. "EH Bilduk erraustegitari atak itxi nahi dizkio datuetan-eta trikimailuak eginez. Materia bizigabea, lohiak eta beste hainbat hondakin ez dituzte aintzat hartzen. Guk ez dugu nahi zabortegirik, argi daukagu: nahiago dugu errausteta zabortegi baino".

EAJren osoko zuzenketa izan zen onartu zena, aldeko 9 bozka, 7 aurkako eta abstentzio bakararekin.

Galdara eta erreguen txandaren politikari eta herritarrek egindako galderekin zegoen erantzunak jaso zituzten udal ordekarieran partetik.

PSE-EE

PSE-EEK Pintore, Nagusia, Juan de Garai eta Pablo Mutiozabal kaleak asfaltatzeko eskatu dio Udalari Jesus Zaballos bozeramaile sozialistak ohar bidez salatu du Lasarte-Oriako hainbat kaleren berriaz ez dela egin: "Pasa den urteko udal aldezkarian herriko gobernuak argitaratu zuen 2014. urtean hainbat kale asfaltatuko zituela. Zehazki, Pablo Mutiozabal, Kale Nagusia, Pintore Kalea eta Juan de Garai kaleak berriaz hitz eginen zuten, 2013an izandako superabita aprobetxatuz. Eta oraindik ez dute ezer egin".

Denbora nahikoa izan dutela iritzita, sozialistek "promes egindakoa asfaltatzea" eskatu diete Bildu, LOHP eta EAJri. "Herriarrei agindutakoa burutzeko eskatzen diegu, urtebete izan dute lanak hasteko eta kalek egoera tamalgarrin jarraitzen dute. Espero dut udal-gobernuak obrak nahita atzeratzen ez aritzea, datoen udal-hauteskundearen bozkek irabazteko helburuarekin", adierazi du Zaballosek.

PODEMOS-AHAL DUGU

Ahal Duguren bilkura Villa Mirentxun

Herriko Podemos-Ahal Duguk ekitaldia egin zuen larunbatean Villa Mirentxun. Dozenaka herritar joan ziren bilerara. Batzuek euren ezinegonak eta galderak egin zituzten. Besteak entzutera mugatu ziren eta sortu berri den alderdiak herriari eskainiko ziona der den jakin asmoz hurbildu ziren. Podemos Ahal Duguko kideek datuen udal hauteskundeetan aurkeztuko den 'Lasarte-Oriak Ahal Du' taldearen nondik norakoa azaldu zituzten eta euren ildo politikoa bertaratutakoei mahai-gaineratu zieten.



ITSASPEKO ZINEMA

Hasi dira saioak Manuel Lekuonan



Danok Kideek antolatutako itsaspeko zinema saioei hasiera eman zitzaizten astelehenean 'Erraldioren gaur', 'Malkoak itsasora', 'Algodre' eta 'Bali' film laburrekin. Irudi ikusgarriez gozatzeko aukera izan zuten kultur etxera hurbildu ziren dozenaka lagun-

nek, proiektore digitalaren kalitate handiak lagunduta. Datoren astelehenean, ostiairean 16an, 'Bidaia Itsasora II' eta Leandro Blancoren 'Oparia' ikusiko dira, David Sanchez Carretero herritararen bost minutuko lan txoroarekin batera. Real Sociedad klubeko itsaspeko atalak umeekin egiten duen lana islatzen da lan honetan.

ELURRA

Lasarte-Oria zuriz jantzi zen

Aspaldian ikusi gabeko irudia ikusi genuen joan den ostiraletan. Lasarte-Oriako kaleak zuriz jantzi ziren bazterretan pilatu zen elurragatik. Temperatura freskoa izan zen, eta argazkiak ederrak oso. Haurrak elurarekin jolasean ikusi genituen eta herritar asko sakelako telefonoarekin argazkiak eta bideoak egiten ere bai, ez baita oso ohiko irudia lehengo astean ikusi-takoa. Goizean zehar ataratu hainbat argazki bildu zituen Txintxarrik, argazki galeria batean. Bideo batzuk ere grabatu eta bideoetara egin zuen. Gutzia ikusgai txintxarri.eus atarian.



Tximistarreta parkea osatu dute

Haur jokoak margotu zituzten asteburuan herritarrek, itxiera ekitaldi gisa

San Pedro elizaren atzeko estalkiaren babesean egin zuten hitzordua larunbat goizean. Tximistarreta parkea pentsatzen, diseinatzen eta gauzatzen aritu diren herritar eta eragile ezberdinak bildu ziren parte-hartze ekimen honi bukaera eta azken ukituak emateko. Adin guztietako jendea, haur, gazte eta heldu aritu ziren lurraldi eta enbor zati bati kolorea ematen, giro onean.

TXINTXARRI

Partaideak goizeko 11:00etan bildu ziren, eta ordurako udaletxeko brigadak guztia prestatuta zuen herritarrek eta batez ere txikienak lurreko jokoak nahiz etorkizuneko egindako lanaren adierazle izango den enborra margotzeko.

2013an hasi zen herritarren parte-hartze ekimena iritsi da amaierara. Hiritzinta antolatzen bizilagunek parte-hartze aktiboa izan dute Tximistarretan eta dagoeneko asko dira parkean egunero jolastzen diren haurrak.

Parkea pixkanaka osatu da; zelaia, bankuak, zuhaitzak, haur jolasak eta azkenik azpialdean, eliz atzeko estalpean, 2013an ateratuko diseinuari bukaera emaz, haur jolas berriak margotu ziren aurreko larunbatean.

Gainera, hemendik aurrera goiko parkean egongo den enbor batean beraien esku markak jartzeko aukera izan zuten parte hartzaile guztiak. Horrela, lanean aritu diren talde eta norbanako guztiak, beraien sinadura jarri ahal izango dute Tximistarretan.

Honako hauek dira Tximistarreta parkearen parte-hartze prozesu irekian lanean jardun dutenak: Bertako bizilagunak, Jubilatuen etxeko ordezkariak, Gaztelekuak ibiltzen diren gazteak, Sasoea-Zumaburuko ikasleak, Sasoea-Zumaburuko guraso elkarteko guraso eta haurrak, Andre Joakina Eneako Haur Eskolako haurrak, Jalgune elkarteak kideak eta Ingurumenaren arloan ibiltzen diren elkarre ezberdinak.

Udalak eskerrak eman nahi izan dizkie prozesuan parte hartu duten guztiak.



Herritarrek diseinutako Tximistarreta parkea osatutzat eman du Udalak, itxiera original batekin.

Badator Korrika

Korrika ere gerturatzen ari da pixkanaka. Martxoaren 19tik 29ra egingo da Korrika eta martxoaren 22an pasako da Lasarte-Oriatetik. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea.

Aurrekari bezala, Gipuzkoako korrika III. mus txapelketa abian da. Eskualde bakoitzean, gure kasuan, Lasarte-Oria eta Usurbil artean kanporaketa jokatuko da. Partidak lau erregetara izango dira eta bikote bakoitzak 12 euro ordaindu beharko ditu parte-hartzeke. Lehenengo bi bikoteek 'Riojanos' erretegiak eskainitako bazkari edo afaria izango dira iri gisa.

Hemengo irabazleak Gipuzkoako finalera joateko aukera izango du, Finala, otsailaren 28an izango da Astigarragan, arratsaldeko 17:00etan Zipotza elkartean eta bertan beste eskualdetako irabazlearen aurka arituko dira. Sari modura finaleko bi bikoteek afaria eta irabazleentzat txapel bana izango dute.

Herriko kanporaketa Avenida tabernan jokatuko da datorren ostiralean, otsailaren 20ean, gaueko 22:00etan hasita. Izen ematea aldez aurretik egin daiteke Munterri AEK euskaltegian edo 607625233 zenbakira deituta. Egunean bertan, 21:45ean, Avenidan ere egin ahaliko da.

Herria Korrikaren zain

Hilabete eskas falta da AEK-k antolatutako 19. Korrika Lasarte-Oriara irits dadin. Aurrez, herriko korrikaren arauzpea martxoaren 13an izango da Manuel Lekuonan. Txalapartariak, desfilea, batukada, bertsokak, dortsak banaketa eta, egingo dira. Gau horrietan bertan zinea eta bertsokorria ere izango dituzte herritarrek gozagarri. Martxoaren 18an Korrika txikia ospatuko da herriko ikastetxeekin eta martxoaren 22an, eguerdian, pasako da Korrikaren 19. edizioa Lasarte-Oriatetik. Donostiako etorriko da lekukoa herriera, gero Usurbil aldera jarraitzeko.

Aldagela berria kiroldegian

Herritar elbarriek kiroldegian irisgarritasun arazoak zituztela ikusita eta ezaugarritasun fisikoren bat duten seme-alaben gurasoen eskariari erantzuna emaz, kiroldegia beste aldagela bat izango du hemendik aurrera.

Lehenengo solairuan kokatuta dago, kafetegiarene ondoan. Izan ere, igerilekura edo pistara joateko arazoa izaten zuten ezinduko fisikoek, behetako solairuan aldatu eta gero igogailua hartu behar izaten baitzuten bainatu edota pistan kirola egiteko. Hemendik aurrera, lehen solairuan bertan izango dute aldagela igerilekura edo pistara zuzenean sartzeko.

"Eskaria handia eta premiazkoa zela ikusita, obra beharrezkotzat ikusi du Udalak. Irisgarritasun arazoak dituzten gazteen gurasoekin jarri gara harremanetan eta haiek eman dizkigute aholkuak ahalik eta espazio txukunena eta erabilerrazena egiteko", adierazi du Taxi



Mugikortasun arazoak dituzten herritarrek zuzeneko sarbidea dute igerilekura.

Arriazabalaga Kiroltetako zinegotziak.

Kafetegiarri zatitxo bat kendu zaio aldagela egiteko, baina luzeran irabazi dituzte aldaketak handirik nabaritu. Karlos Altuna Udako kirol teknikariaren esanetan. Obraren inbertsioa 55.000 eurokoa izan da.

Bestalde, 2013ko abuztuan igerilekuan elbarritzat

garabi bat jarri zutela adierazi du kiroldegia irekita dagoen orduetan lasarteoriatarrek erabili dezaketela gogorazi dute, piszina handian zein txikian.

Gainera, astearte eta ostiralean mugikortasun arazoak dituzten herritarrentzat ikastaro bereziak ditu martxan Udak Kiroldegia. Izena emateko aukera dago plazak amaitu bitartean.

Has dadila Inauterien festa!

Ipuin, komiki eta marrazki bizidunetako pertsonaiez jantziko da Lasarte-Oria asteburuan

Herritar batzuek aste luzeak daramatzate mozerro originalenaren bila, eta gaur bertan, ziur batek baino gehiagok oraindik ez duela erabaki zer mozerro jantziko duen asteburuan. Gauza bat bada ziurra ordea, giro onak, musikak eta festak Lasarte-Oriako bazterrek blaituko dituela, eta tamalez, dirudienez euriak ere bai. Taxio Arrizabalaga Festak, Kirolak eta Gazteria zinegotziarekin hitz egin dugu aurtengo Inauterien berrikuntzei gehiago jakiteko.

TXINTXARRI

Taxio Arrizabalaga Festak, Kirola eta Gazteria zinegotziak azaldu du Inauterien prestatutun "plazera" izan dela. "Urtero abiatzen dugun parte-hartze prozesu honetan ere giro bikaina egon da, konpartsek aktiboki egiten dutelako lan bilera hauek eta oso produktiboak izaten direlako. Asko bizi dituzten festak dira, eurenak".

Berrikuntza batzuk ere izango ditu aurtengoak, iaz prestatutako sagardo dastaketari arden pintxoak ere gehituko dizkizute larunbat eguerdian. Dena den, 2015eko nobedade nagusia konpartsen lehia eta da: "Konpartsek egiten duten lana bisualizatu asmoz, aurtengo lehia eta antolatuko dugu lehen aldiz. Konpartsen artean erabakiko dugu zein den onena, originalena.

Konpartsa bakoitzak bozka bat eman ahal izango du eta bozka gehien lortzen dituenak gidatuko da arratsaldeko desfilea herriko kaleetan barrena", adierazi du Arrizabalaga zinegotziak.

Eguraldiak ditu pixka bat kezkatuta antolatzaileak eta zentzu horretan, ohar bat helarazi nahi die Udalak herritarrei. Euria egin ez gero, bazkari herrikoia Michelingo pilotalekuan egingo da.

Euskal Inauteriak igandean

Erketz, Ttiriki-Ttarraka, musikariak, Kukuka eta Titkun buru-belarri ari dira Euskal Inauteriak antolatzen.

Aurten, goizeko ekintzak plazara mugatuko dira 12:00-14:00 bitartean. Lau gunetan banatuko dute Okendak: 1. gunean txantxo jantziak egiteko aukera izango da Titare justundegiko kideekin. 2. Gunean dantza tailerra izango da Plazadantza



Gisa honetako mozerro eta irudi koloretsuak ikusiko dira herrian, asteburuan zehar.

kideen eskutik, dantzak irakatsi eta ikasteko. 3. gunean erakusketak, Inauterien eta euskal dantza tradizionalen panelak jarriko dira, argazki eta azalpenekin. 4. gunean azkenik, goizeko ekintzetan parte-hartzen dutenentzat hamaiketako egingo da sagardo eta txorixo pintxoarekin.

Garaikoetxeako atarian egin dute hizordua arratsaldeko saiorako. 17:00etan txokolate jana egin eta kalez kale abiatuko dira 19:00etan Okendon hartza ere aurretik.

Euria egingo balu, ekintzak Okendoko karpan bertan egingo dira.



Ohiko pertsonaiez gain, aurtengo mamoxarrok ere izango dira, sorpresa gehiagorekin.

Inauteriak 2015 - Egitaraua

Lasarte-Oria ipuinetako eta komikietako pertsonaiez beteko da asteburuan. Honako egitaraua dago prestatuta herritarrek jaiez goza dezaten. Adin gutxietako jendearentzako moduko ekintzak dira 2015eko Inauterietakoak:

Otsailak 13, ostirala

-15:30 Inauteri-festa eskolatan. Musika-festa Sasotetan, eta ondoren txokolate-jana.

-15:30 Euskal Inauteria Garaikoetxean.

Otsailak 14, larunbata

-12:00 Parte-hartzaileen elkarteak eta Lasarte-Oriako konpartsen arkezpena Okendo Plazan, Kalean txar-rangak girotuta. Gainera, sagardo barrikote-pintxoak izango da plazan bertan, mozerroturik agertzen diren herritar jantziatzat. Tekila konpartsek egingo du Inauterien irekiera ekitaldia.

-12:30 pintxo-poteoa herriko tabernetan, Kalean txar-rangak girotuta.

-14:00 Konpartsa lehia eta irabazleari sari banaketa.

-14:00 Urteroko gazte bazkaria Sollane sagardotegian.

-14:30 Bazkari herrikoia Okendo Plazako karpan.

**** Bakoitzak bere bazkaria eraman behar du. Euria egingo balu bazkaria Michelingo frontoian.**

-15:45 Bingeri hasiera 'Hemendik At' koreografiaren Gizeklubaren eskutik, Okendoko karpan. Ostein, Super Bingoa.

-16:30 Konpartsen elkarteak Okendo Plazan, eta desfilean hasi baino lehen, txokolate banaketa konpartseroen artean.

-17:00 Desfilea, honako konpartsa hauek parte hartuko dutelarik: Zentro Zibikoa, Zabaleta, Tekila, Naste Borraste, Larremendi, Jalguene, Titkun, Intzak Parandak, eta Zakili Beldur. Ibilbidea Okendo Plazan hasiko da eta herriko kale eta auzoetan barrena ibiliko da, konpartsa lehia eta irabazi duen taldeak gidatuta. Berrikuntza gisa, aurtengo batez ere Sasota inguruak alaitzea erabaki dute konpartsek. Desfile koloretsu eta umoretsua Okendo Plazan bukatuko da arratsaldeko 19:00ak aldera.

-19:00 Elektrotxaranga Ohenian herriko kaleetan zehar ibiliko da umorea eta giro ona jartzen gaueko 21:00ak arte, afaldu aurreko poteoan laguntzeko.

-23:00 Makro diskoteka Okendoko karpan goizaldekoko 03:00ak arte.



Joan zen astean egin zuten jaietan aurkezpene ofiziala.

Otsailak 15, igandea

-12:00 Euskal Inauteriak konpartsak hainbat ekintza burutuko ditu Okendo Plazan: herriko elkarteak eta norbanakoek konbokatutako, dantza eta kantu erakustaldia elkarte eta herritarrek batera eta sagardo eta txorixo dastaketak.

-17:00 Txokolate jana Atsokarren.

-17:30 Txantxo jantzi-tako Euskal Inauterien konpartsa kalez kale abia-

tuko da: Atsokabar Kalea, Donosti ibilbidea, Kale Nagusia, Ola kaleko erro-tondaraino, Kale Nagusia, Hipodromo etorbideak jaitzi eta Okendo Plazan bukatuko dute.

-19:00 Tradizioa, dantza eta kantua uztartuz, elkarte eta herritarrek batera hartza erreko da Okendo Plazan Euskal Inauteri amaierea emateko.

Ondo pada!

LABURRAK-

Ion Arroyok eta Fermin Baldak brontzezko domina lortu dute Euskadiko Txapelketan

LOKEko judokak txapelketa handiak egiten ari dira azken aldian. Asteburuan, Gasteizko Arriaga kiroldegian lehiatu zuten Josu Olmosek, Asier Zubizarretak, Ion Arroyok eta Fermin Baldak. Itzulerrako bidaia goxatu zieten bi brontzezko dominako uztu ekarri zuten LOKEko juniorrek Arabako lautada izoztutik.

Fermin Baldak, beste behin, maila altuko txapelketa osatu zuen. Lehen konbatea segurtasun handiarekin irabazi zuen, baina finalaurrekoan ezin izan zuen aurkaria menperatu. Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko borrokaldirian erraztasunaz lortu zituen garai-pena eta brontzezko domina. Ion Arroyo ere gora egiten ari da astez aste. Gasteizko lehen borrokaldira oso erraz irabazi zuen. Tamalez, finalaurreko parekatu batean ezin izan zuen finalerako txartelik eskuratu. Brontzeagatik borrokan are-
rioa lpon bidez garatu zuen.



Arriaga kiroldegiko txanponaren B aldea Josu Olmos eta Asier Zubizarretak ikusi zuten. Olmosek lehen bi konbatea irabazi zituen ere, finalaurrekoa eta hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko borrokaldirak galdutako egin zituen eta esku-hutsik itzuli zen herrira. Bide beretik, Asier Zubizarretak lehen konbatea galdutako zuten modu krudelean, 30 segundo besterik falta ez zirenean. Errepeskan ez zuten bigarren aukerarik izan.

Gorka Aristegui prestatzailearen mezua, argia: "Zorionak lauriei, lanean jarraituko dugu".

Ostadar SKTko sisenen taldeak ezin izan du 3. probintzialeko iguera faserako sailkatu

Gutxiagatik izan bada ere, kanpoan geratu dira 3. Probintzialeko gizezko siseniorak. Garaipen baten faltan, ezin izango dute mailaz igotzeko borroka egin. Liga erregularraren zortzi garaipen eta sei porroteko balantzea eskuratu dute. Bosgarren postuan sailkatu dira zortzi taldeko ligak, laugarrenarekin berdin dute.



"Iguera fasea jokatzen lehiari egoteko taldea daukagu", dio Endika Marrahi taldeko jokalariek, "talde sortu berri honetan ikusi da zertarako gai izan gaitzekin, baina ezin izan dugu lortu. Dena den, pozik egoteko moduko denboraldia burutzen ari gara jokalariek, eta orain garrantzitsuna irabazte ez ezik, gozatzeko da, gure artean gero eta gehiago ezagutu eta pixkanaka mailaz igotzeko", adierazi du Ostadar SKTko saskibaloi alorrean arduradunak. Hurrengo faseko zozketa bihar egingo da, hamar taldekin: Zarautz, Ostadar SKT, Luberri, Asatuak Magikoak, Gamon, Añorga, AIB, Allerru B, Mutriku eta Asatuak C.

KIROL AGENDA.-

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 13
 Michelingi kirol-gunea, 19:45ean
 Iargi - Izkia
 Michelingi kirol-gunea, 20:45ean
 Txindoki - Reforms Lagunak

Larunbata 14
 Michelingi kirol-gunea, 9:15ean
 Vía del Mar - Insauti
 Michelingi kirol-gunea, 10:15ean
 Bar Buenetxea - Bar Also
 Michelingi kirol-gunea, 11:15ean
 Txoko - Urdaneta HK
 Michelingi kirol-gunea, 12:15ean
 Bar El Punto - Indux

ERRUGBIA

Larunbata 14
 Michelin, 16:00etan

Babyauto ZRT Beltzak - Gernika RT
 Euskal Liga,
 Sub 16.

Michelin, 11:00etan
 Babyauto ZRT Beltzak - Gernika RT
 Euskal Liga,
 Sub 18.

Asti, Zarautz 16:00etan
 Babyauto ZRT Beltzak -
 Apatxarros de Burgos
 Oñazko B maila,
 18. jardunaldia.

IPAR-MARTXA

Iguera 15
 Sagues, Donostia 10:00etan
 6.1 kilometroko Martxa Nordikoa,
 Aspangogik antolatuta.

FUTBOLA.-

Aritz Bordak Bukaresteko Rapiden jokatuko du

Kadeteetatik 3. mailara ez dago jardunaldirik, grebara doaz

Badu taldea Aritz Borda Etxezarreta jokalaria lasarteoriatarak. Nora jo ez zuela, AFEn sartu zen, talderik gabeko Espainiako Futbolari Elkartearen. la urtebete geldirik egon ostean, topatu du non jokatuko denboraldia amaitu arte. Errumaniara doa 29 urteko erdiko atzelaria, bertako talderik entzutsuenetarikoaen elastiko granatea janztera.



Aritz Borda AFEn lagunarekin partidua batean, aurtengo denboraldian.

TXINTXARRI

Palmarensari dagokionez hiriko hirugarren taldea da Bordarena, Steaua eta Dinamoren atzetik. Hiru Liga eta hamahiru Kopa ditu irabaziak klubak 92 urteko historia. Dena den, Errumaniako lehen mailara igo berria da auten Rapid eta ataka estuan sartuta dago, hamazazpi partidua jokatuta sailkapenaren zuloan baitago 1923an Errumaniako trenbideetako langile batzuek sortutako taldea.

Ibilbide oparua

Aurrez, 2004-2005 denboraldiaz geroztik Sansas, Real Unionen, Athletic Bn, Mirandesen, Huelvako Recreativon, Nikosiako Apolonen eta Tailandiako Muanthong Uniteden jokatuko du lasarteoriatarak. Orain, beste pausotxo bat eman nahi du bere futbol

ibilbidean 1,89 metro luze den jokalariek.

Lehen mailan jokatuko ez bada ere, Espainiako bigarren mailan eta bigarren B mailan 50 partidua dituen pilatuta: Txipre eta Tailandiako Ligetan zeresana eman du eta orain, Errumaniako Liga, Rapid indartzea du helburu.

Futbol taldeen greba

Euskadiko Futbol Federazioak grebarekin bat egin eta bertan behera utzi ditu asteburuko norgehiagokak, Kadeteetatik hasi eta Hirugarren Mailara arte. Eskola Kirolekoak eta Infantil mailakoak jokatuko dira. Era berean, Aretu Futbol federatuko taldeek ez dute jardunaldirik euduko, baina herriarte txapelketakotako partidua ezarritako ordutegietan mantenduko dira.

"Espainiako Gobernuak Lan Ministerioak sustatutako legegia" izan da bat egiteko arrazoi nagusia, Euskadiko Federazioak esan duenez. "Legediak futbol taldeak behartzen ditu parte hartzen duten pertsona guztiak kontratatzea eta Gizarte Segurantzaren kotizatzea; onartuko balitz, talde asko desagertu egingo lirateke". Era berean, eskatu du "araudi propio eta zehatz bat" landu behar dela, afizionatu mailako futbolaren "ezagarririk bereziak" aintzat hartuta.



ARETO-FUTBOLA.-

ISU Leihoak sailkapenaren erdi-erdian

Cipuzkoako Ligako 1. mailan, zazpigarren postuan ageri dira herriarrak. Denboraldiko lehen hamalau partiduetan 20 puntu eskuratu dituzte. Sei neurketa irabazi, bi berdinu eta sei galdut.

Joan den asteburuan Tolosan jokatutako zuten ISUK, Eskolapioak kiroldegian. Garaipen garrantzitsua lortu zuten sailkapeneko azken tokian ageri den Hirukideren aurka, 2-4ko emaitzaz.

Eneko Molinaren mutilek kontrolpean izan zuten norgehiagoka uneoro eta Manex Lizarrak, Unai Iturte eta Lander Martinen 2 golekin,



Hasiera gora-beheratsua baten ostean, gora egiten ari dira ISUKo mutilak.

garaipen garrantzitsua eskuratu zuten sailkapenaren goialdeari begira jartzeko.

Aste honetako neurketak berta berrera geratu dira fut-

bol federazioen greba medio. Datorren jardunaldian, otsailaren 21ean, Allerru Jaizkibel Tabernaren aurka jokatuko beharko dute, etxetik kanpo.

— Agenda —

Gaur, Brigitarren komentuan, 19:30ean



Kamera musika Arimaz-en eskutik

Danak Kidek antolatutako X. Musika topaketek musikaz giro-tuko dute gaur Brigitarren komentua. Tolosako Arimaz Kamera Orkestrak eskainiko du emanaldia, 19:30ean. Itziar Lujanbik oboea joko du eta Arantza Etxabe sopranoak jarriko du ahotsa. Zuzendaria Kepa Martinez de Albeniz izango da. XVII. mendeko konpositoreen hainbat pieza joko dituzte.

talde batek alemaniar nazien aurka borrokatu beharko du.

Walter koadro-margolarien istorioa kontatzen da bertan.

Lasarte-Oria

Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea, 17:00etan

'Noche en el museo: El secreto del faraon' filma eskainiko dute haurren atalean. Sarrerak 3,80 eurotan. Museoren zaindaria den Larry Daley-k abentura epiko bat hasiko du magia betiko desagertu ez dadin.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea, 19:30ean

Helduen atalean David Ayer zuzendariaren 'Corazones de acero' pelikula ikusi ahaliko da. Sarrera 5,50 eurotan. 1945ean, soldadu amerikar

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 16, 19:30ean

IV. Itsaspeko Zinema zikloaren bigarren emanaldia izango da. 'Bidaia itsasoan II', Leandro Blancoren 'Oparia' filma eta David Sanchez herritarren bost minutuko lantxoa eskainiko dituzte. Real Sociedad itsaspeko atalak umeekin egiten duen lana islatzen da. Sarrera doan.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 20, 22:00etan


Okendo Zinema Taldeak antolatzen duen zine forumen 'Big ezari' pelikula eskainiko dute. Margaret eta

Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 21, 20:00etan

Salzburgeko jaialdian (Austria) aurrez grabatutako 'Amor, vida de mi vida' zarzuela ikusi ahaliko da. Eduki digital berrien emanaldiko bigarren saioa izango da.



Tailerra

GAZTELEKUA

Gaur, 19:00etan

Modu anitzak daude bikoteak osatzeko. Nola egin dute gaurko gazteek ligatzeko? Nork hartzen du aurrea gehiago, mutilik edo neskak? Sare sozialetan gauzatzen dira gaur egungo sedukzio-moduak? Zer egin lotsari aurre egiteko? Zergatik ligatzen da? Gisa horretako gaiak landuko ditu Sexu Aholkularitzako Bulegoak 'Sexualitate arduratsu eta zoriontsurako' tailer horretan.



Diaporama

JALGI KAFE ANTOKIA

Asteazkena 18, 21:30ean

Ostadar Mendi Saileko kideek 'Pirinioak eta Alpeak' izeneko diaporama eskainiko dute, bi mendierro horietako paraje edo ugari erakutsiz. Itakun KEK antolatutako saioretatik hirugarrena izango da. Otsailako asteazken guztietan dute aukera herritarrek munduko hainbat txokotara bidaiatzeko, irudi eta hitzaldien bitartez. Saioaren ondoren pelikula zerbitu jarriko dute antolatzaleek. Sarrera doan.

Herritarren txokoa

Korrikaren materiala salgai

Martxoaren 19tik 29ra egingo da Korrika eta martxoaren 22an pasako da Lasarte-Oriatik. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea. Dagoeneko salgai dago materiala herrian, Geltoki Kaleko AEKren Muntteri euskaltegian. Neskentzat eta mutilentzat kamisetak, txanoak, jertseak, buffak eta polako bertan daudela jakinarazi dute AEK-ko kideak. Herritarrek euskaltegitik pasa daitezke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldeko orduetegan.

Lilatoia prestatzeko saioak

Martxoaren 1ean izango da aurtengo Lilatoia, eta lasterketaren aurretik pare bat entrenamendu saio antolatuko ditu herritako emakume talde batek. Otsailaren 11n egin zuten lehena eta hurrengoa 18an izango da. 9:00etan jarri dute hiztordua. Hipodromoko zubian. Bestalde, Lilatoian izena emateko epea otsailaren 20an bukatzen da.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutik argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitza

Lasarte-Oriak legegintzaldia galdu du birziklatze bidean pauso sendo sendorik egin gabe

PSOEek eta EAJ-k 5. edukiontzia barrikada gisa erabili dute Udalak neurri eragingarriagorik ez hartzeko, baina legegintzaldia bukatzeaz da, eta, iragarri zutenaren kontra, 5. edukiontzia ez dute ezarri.

Berogei familia estreinatzen ari dira egunotan Udalak Basaundin eta Zapategi kalean ezarri dituen aukozonpostaguneak. Beste berogei familia langintza berean dabilzta izatxi Sasoetan eta Urbarren. Ekinenaren helburua herriarrak sortzen dituzten hondakin organikoak haiek berek kudeatzea da. Berez, ikuspuntu kualitatibotik, oso-oso ekimen baliotsua da. Ikuspuntu kuantitatibotik, berriz, garbi dago 80 familien ahalagina hutsaren hurrengo dela, Lasarte-Orian batzaz beste 18.000 lagun bizi direla kontuan izanda. Alde horretatik, hauteskunde berriak egiteko lau hilabete baino geratzen ez diren honetan, lasai asko esan dezakegu Lasarte-Oriak legegintzaldi hau pasatzen utzi duela birziklatze bidean fundamenduazko pausorik eman gabe. Iragarri zutenaren kontra, 5. edukiontzia ere ez dute oraindik ezarri. Are gehiago, dagoeneko segurutzat jo dezakegu hemen eta maiatz bitartean ez dutela herri osoan ezarriko, eta sikiera auzoren batean ezarriko eta duten er dudakoa da.

Aurreko paragrafoan "5. edukiontzia ere ez dutela ezarri" nabarmendu nahi izan dugu. Izan ere, PSOEek eta EAJ-k 5.

edukiontzia barrikada gisa baliatu dute neurri eragingarriagoak oztapatzeko. Gogora dezagun...

2013ko urtarrilean, Udalak, PSOE, EAJ eta PPren botoiei esker, 5. Edukiontzia Ezartzeko Batzorde Berezia sortu zuten. Alegia, ez zuten sortu hondakinak ahalik eta modurik eragingarrienean lau kudeatu aitzeko batzorde bat, espresuki 5. edukiontzia ezartzeko batzorde bat baizik. PSOEko bozeramaile Jesus Zaballós izendatu zuten presidente, eta honek zera adierazi zuten: "Gipuzkoako hainbat herrian 5. edukiontzia nola ezarri duten aitzertuko du Batzordeak, eta, horren arabera, erabakiko dugu Lasarte-Orian nola egin. Hori da nire asmoa".

Luze egon ginen Batzordearen berri izan gabe, harik eta iaazko apirilaren PSOE, EAJ-k eta PP-k, egi hori ondoren haiekin bat egin zuten Herritar Plataforma, 5. edukiontzia ezartzeko behin betikoko akordio bat izenpetu zuten arte. Akordio horrek ez du finkatzen lortu beharreko gutxienezko birziklatze saririk, adibidez, %60, herri gehienetan, paperaren gainean, behintzat, egiten ari den bezala. Akordioak edukiontzia txip-dunak izatea ere ez du aurreikusten (fira, txipa ere ez da beste munduko ez, baina sistema monitorizatzea eta, ondorioz, hobekuntzak egitea ahalbidetu dezake). Hala ere, Zaballósek esan zuten arabera, "akordioa hainbat tek-

niko eta politikoko Batzordearen emandako azalpenen ondorio da". Bie-tako bat: edo tekniko eta politikoko horiek guztiek gauza bera eta bakarra pentsatzen zuten (legia esan, badakigu, jakin ere, berdin pentsatzen ez zuten baten bati, bati bat Zorabon, ez ziola azalpena ematera ere deitu, azalpena ematera deitezko espresuki eskatu zuten arren) edo ez zieten jaramon handirik egin. Laburbilduz: 5. Edukiontzia Ezartzeko Batzorde Berezia 5. edukiontzia ezartzeko adostu zuten (honen kontura txiste ona egingo luke Groucho Marxek). Horretarako ez dirudi hainbesteko zalaparta behar zuten. Zaballósek, ordea, "garaipean handitza" jo zuten. Dena dela, haren neurritz gainera espasutak bost axola guri. Izan ere, garrantzitsua da iragarri zuela 5. edukiontzia Lasarte-Orian 2014an ezarriko zela.

2015eko otsailaren gaude eta iragarritakoa ez da bete, eta ez dirudi hemen eta maiatz bitartean beteko denik. Behar-bada auzoren batean, baina hori ez da segurua. Berez, arestian esan bezala, Lasarte-Oriak bukatzen den legegintzaldia galdu du, beste bat, birziklatze bidean aurrera egiteko. Behar-bada hori baino ez zuten helburua. Izan ere, zenbat eta gutxiago birziklatu, gero eta biziago mantenduko da erauskailuzko garra.

Eguzki eta Lasarte-Oria Zorabon

Idoia Garzes Kazetari eta idazlea

"Gidoia irakurri dutenak gustura geratu dira; hori da sari handiena"

Cafe Bar Bilbaoren antzerki laburreko gidoi lehiaketa irabazi du Idoia Garzes herritarrak

Mendian zegoen Idoia Garzes, lagun batekin, sariaren berri izan zuenean. "Ostatuan wi-fi konexioa zegoen eta bertan jaso nuen berria. Poz handia hartu nuen", aipatzen du irribarre batekin. 1.200 euroko saria jaso du, baina saria arlo ekonomikotik harago doala dio: "Jende askok zoriandu nau, hori izan da zoragarriena". Hurrengo 'saria' ere buruan dauka Idoiak: "Antzerkia taularatuta ikustea litzateke bigarren saria niretzat; Kukulak egingo balu herrian, taberna giroan, zer esanik ez".

Iñigo GONZALEZ

Elkarrizketa hasi baino lehen kafesne bat eskatu arren, Idoia Garzesek ez ditu horrelako asko edan 'Buruaz norbere egin' gidoia idatzi bitartean: "Izenburua etorri zitzaidan lehenengo. Argi neukan elkarrizketa bat behar zuela izan, bi emakumeren arteko solasaldi bat. Blokeka joan nintzen gidoia osatzin; zati bat idatzi eta geratu, horrela bukatu arte".

Mertxe eta Anamari dira protagontistak. Langtei batera egiten dute lan, eta ez dute kafe askorik hartzeko denbora irizten. Noizean behin hitz egiten dute elkarren artean, ordea. Ez edozein gai hutsali buruz; erabaki trazendental baten inguruan baizik. Euren lankide Felik hartutako erabaki "koldar" bati buruz hasten dira hausnartzen, eta oharitzen dira besteen zerbitzura bizi izan direla beti, eta badela garaia behingoz euren bizitzaren lema hartzeko.

"Besteei emanak bizi izan dira beti Anamari eta Mertxe (familia, senarrak, lana...), baina erabakitzen dute badela garaia hori atzean utzi eta eurengan pentsatzen hasteko garaia, lema hartu eta bizitzeko garaia. Norbera norbere bihurtzen da", azaltzen du gidoiaren idazleak.

Elkarrizketa laburra baina bizia da bitartegia. Hala ere, bi ezaugarri horiek edukiitzeak ez du esan nahi noka ari- tzen diren Mertxe eta Anamariren gogoetak sakonak ez diren- nik.



Emakumearen bizimodua eta rolar buruzko aldarrikapenak aurki daitezke, Garzesek azaldu moduan: "Euskal matriarkatua kontzeptua kritikatzin dut, esaterako. Hainbat urtetan saldu diguten txorakeria bat da. Mertxe eta Anamari aipatzen dute testuan alaba, ama, emazte eta errain izateko heziak izan direla. Hori baldin bada euskal matriarkatua, jai daukagu! Matriarkatua benetan existituko balitz, lehendakari izango nintzateke ni orain!".

Jaso duten hezikuntzarena bezalako gogoetek eramaten dituzte Mertxe eta Anamari erabaki garrantzitsu hori hartzea: euren bizitzaren jabetza hartzea, norbere izatera.

Gogoeta eginarazten

Zein ote da erabaki hori? Lana utziko al dute? Senarrak eta familia, akaso? Dena erabakitzu moztu eta euren buruz beste egingo ote dute?

Gidoia irakurri ahal sortuko zaizkie zalantza horiek irakurleei. Ariketa hori egin beharko dute; pentsatu, hausnartu. Idoia Garzesek ez die erantzun garbirik emango, ordea: "Ez zait gustatzen dena egin ematea. Irakurle-ri tartea uzten diot ondorioak atera eta gogoeta egingo".

Mertxe eta Anamari suizidatza erabakitzen dutela izan da irakurle askok ondorioztatu dutena lehen irakurraldiaren ondoren. "Askok aipatu didate nola izan ote naizten gai bi emakume suizidiora eramateko, baina gidoia berri irakurritz gero jabetzen dira nik ez dudala gai hori aipatzen esplizituki. Hori pentsaraztera eram nahi dut nik irakurleak,



Teresa Calo, Mikel Martinez eta Idoia Garzes, sariaren banaketaren egunean, Cafe Bar Bilbao taberna atzean dutea.

nahiz eta erabakia edozein izan daitekeen. Lantokia utzea izan daiteke soilik, nork dakin!".

Euskarazko saria

Mikel Martinez aktore eta Cafe Bar Bilbao tabernaren jabea ere bigarren irakurraldian jabetu zen behar baino lehenago atera zituela ondorioak: "Buruaz beste egitearena Mikelek berak ere aipatu zidan. Aktorea da bera eta mundu horretan mugitzen da, baina berriz irakurtzen ohar- tu zen Anamari eta Mertxe beharbada ez zirela suizidatu!", oroitzen du Garzesek.

Idazlearen "amaru" horretan erori arren, Martinezek testua gustatu zitzaioela dio Garzesek: "Hainbat gidoi irakurri ditu Mikelek bere ibilbidean zehar, eta nire gidoia ona dela esaten entzuteak asko poztu nau; badaki zertaz ari den".

Lagun batekin batera mendian zegoen Idoia Garzes sariaren berri izan zuenean. "Wi-fi konexioa zegoen ostatuan eta bertan izan nuen horren berri", gogoratzen du.

Ostatua ez, taberna bat da Cafe Bar Bilbao. Guztiek egiten duten bezala, hainbat kafe zerbitzatzen ditu egunean zehar. Eta, beste inork egiten ez duen moduan, euskarazko eta gaztelazko antzerki laburren gidoien saria antolatzen du urtero. XII. edizioa izan da aurtengoa, eta euskarazko saria bereganatu du Idoia Garzesek. Gaztelaniazko berriz, Teresa Calo aktorearentzat izan da. "La plancha o la vida" du izena hark idatzitako gidoiak.

Cafe Bar Bilbaoren web orrialdean irakur daitezke Idoiak idatzitako gidoia, 'Teatro gidoi saria' atalean; 'Buruaz norbere egin' estekan klikatu behar da

Idoia Garzesek 1.200 euro poltsikoratu ditu saria irabazteagatik. "Langabezian nengoen orduan eta aizu, 1.200 euro 1.200 euro dira".

Saria, ordea, zenbakiez harago dio: "Jende ugari zoriandu nau irabazi ostean. Askok gustatu zaiela esan didate, hori da benetako saria niretzat, gauza zoragarriena. Nahiago ditut 1.200 zori- tze 1.200 euro baino".

Antzerkia taularatu

Cafe Bar Bilbaorena eskuratu eta gero, bigarren 'sari' bat dauka buruan Idoia Garzesek: "Gidoia irakurri ostean antzerki talderen batek taularaztea erabakitzen badu, aurrera. Herriko Kukuka taldeak egingo balu hemengo tabernaren batean... Bigarren sari bat izango litzateke hori niretzako".

Taberna giroan, 20 minutu- ren bueltan taularatzeko gidoia prestatu du Idoia Garzesek. Euskarazko saria iraba- zi arren, berarentzat egindako testu bat dela, irabaztea ez zela xedea: "Lehiaketara gidoia aurkeztu nuen bane- kielako lan txukuna zela; ez nuen erriidkulerik egin nahi. Dena dela, niretzat idatzi nuen; polita iruditu zitzaidan ideia eta pixkanaka papearen islatzen joan nintzen, buruan eta koardonoetan nituen apunte mordoak nituz".

Idoiaoren koardemoko zirri- borroetako batzuek, ziur asko, zerikusia izango dute Olenitzero eta herriko Santa Ana ospakizunarekin. Badara- matza urte batzuk bi ekitaldi horietarako gidoiak presta- tzen; "oso gustura" egiten duela aipatzen du kazetari eta idazle herritarrak.

Bizkarrezurra

Antzerkizena aldi guztik (antzezpena, eszenografia...) ahalik eta ongien mugitu dai- tezen, beharrezkoa da bizka- rrezur ona eta sendoa izatea. Garzesek adierazi moduan, gidoiak betetzen du funtzio hori: "Gidoia da antzerkiaren ardatza. Penelope Cruz bal- din badaukazu, bera izango da ikusleak gaitatuko dituen amua, baina ziur Penelopek berak nahia du testu on bat erdipurdiko gidoi baino".

Antzezlari, telebista-saio eta filmen ardatza izan arren, Cafe Bar Bilbao antolatutako moduko sari "gutxi" daudela dio Garzesek: "Kutxak eta beste zenbaitek ematen zituz- ten horrelako sariak, baina urtean poderioz desagertzen joan dira, krisi ekonomiko- gaatik bereziki. Mikel Martine- zek badaki zer dagoen eta builtzadaxoa eman nahi du gidolilartzari. 1.200 euro sar- duen bakoitzari... Bejondeiola! Hark bai kafe mordo zerbi- tzaizen dituela!".